

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 6/2014

ERABAKIA EUSKO JAURLARITZAKO ZUZENDARI (...) JAUNAK PLANTEATUTAKO GAIARI BURUZ

1.-2014kok ekainaren 4ko mezu elektronikoaren bitartez, (...) jaunak, Eusko Jaurlaritzako zuzendariak, Etika Publikorako Batzorde honi kontsulta bat egin zion “zuzendari gisa betetzen dudan postuarekin zerikusia ez duten bi akademia- eta irakaskuntza-jarduerari buruz. Bi jarduera horietan parte hartuko dut, eta aurreikusita dago parte-hartze horrengatik ordainsari bat jasoko dudala.”

Interesdunak azaldu duenez, “(...) jarduera horietan parte hartuko dut UPV-EHUko irakaslea naizelako eta gai horretan aditua naizelako, orain betetzen dudan kargu publikoan hasi aurretik, eta Unibertsitatean emandako urteetan egin nituen harreman akademiko, pertsonal eta profesionalen ondorioz. Gainera, jarduera horien edukiak ez du inolako zerikusirik Zuzendaritzan egunero bete behar ditudan erantzukizunekin”.

Honako hau erantsi du: “Premisa horiei gaineratu behar zaie, batetik, jarduera horiek puntualak direla, eta, bestetik, arratsaldean garatuko direla, eta, beraz, nire postuaren jarduera arruntak oztopatu gabe. Horrengatik uste dut ez dudala kode etikoa hausten jarduera horietan parte hartzeagatik”.

Kontsulta akademia- eta irakaskuntza-jarduera jakin bati buruzkoa da, hain zuzen ere bi ikastarotan bi saio emateari buruzkoa.

Lehena ekainaren 5ean ematekoa zen, eta interesdunak saio bat emango zuen jada Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, Ertzaintzaren Eskala Gorenean eta Euskal Herriko Udaltzain Kidegoen Intendente kategorian sartzeko ikastaroaren barruan.

Kontsulta-egileak erantsi duenez, 2010. urteaz geroztik zenbait aldiz parte hartu du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian sartzeko eta igotzeko ikastaroetan (Komisario —bi promozio—, intendente —promozio bat— eta komisariorde —promozio bat— kategorietara igotzeko ikastaroa). Adierazi du, halaber, ikastaro horiek antolatzea UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen mendeko Kriminologiaren Euskal Institutuaren ardura dela, eta bera erakunde horretako kide dela, baita ikertalde eta ikerketa-proiektuetako kide ere, logikoa denez, gaur egun eremu horretan betetzen duen jarduera askoz ere txikiagoa bada ere zuzendari gisa hasi arte betetzen zuena baino.

Bestetik, eman beharreko gaia "Zuzenbide prozesala: komunikazioen interzeptazioa eta giza eskubideak" da, eta, atzeman daitekeenez, eta interesdunaren hitzetan, "ia-ia ez du zerikusirik Zuzendaritzaren barruan garatutako zeregin arruntekin. Oro har, aurreko ikasturteetan gai bera eman du, eta horretarako erabili zituen kasu praktikoak aldeztu aurretik prestatuta zeuden, behar izanez gero eguneratuta eta talde bakoitzera egokituta. Gainera, gai horri buruzko zenbait liburu-kapitulu argitaratu ditut, zenbait hitzaldi eta komunikazio emateaz gain, Estatuko eta nazioarteko konferentzia eta biltzarretan".

Bigarren ikastaroa ekainaren 12an ematekoa da, eta interesduna gonbidatu dute abokatu-langelaren enpresa-zuzenbideko masterrean saio bat emateko(...).

Argudiatu duenez, "abokatu-langelako zenbait kide ezagutu nituen eta lankide izan ditut Eusko Jaurlaritzan sartu baino urte batzuk lehenago (...). Laburbildurik, langelako zenbait abokatu — zigor- eta merkataritza-arloetakoak, batik bat— nirekin harremanetan jartzen ziren, zuzenbide prozesalari buruzko galderak egiteko edota aholku edo iritzia eskatzeko, horixe baita nire-jakintza-arloa unibertsitate-eremuan. Ondoren, 2012ko abenduan, eta beraz, Eusko Jaurlaritzan sartu baino lehen, abokatu-langelako bazkideek eskatu zidaten abokatu-langelaren "urteko ideiare" sariaren epaimahaiko kide izateko, Estatuko abokatu batekin eta unibertsitateko beste irakasle batekin batera (...). Balio erantsiko ideia berritzaileak sustatu eta saritu nahi ditut sari horrek abokatu-langelako abokatuen artean. Kolaborazio horrengatik ez zidaten ordaindu, eta 2013. urtean errepikatu egin nuen".

Gainera, 2014ko apirilean "El Medarb y otras fórmulas híbridas de resolución de conflictos" ("Medarb-a eta gatazkak konpontzeko beste formula hibrido batzuk") izeneko artikulua argitaratu nuen "Abokatu-langelaren aldizkari juridikoan (...)", "arbitrajeari, bitartekotzari eta gatazkak konpontzeko beste sistema batzuei" eskainitako zerbaki berezi baten barruan.

Zentzu horretan, eta Etika Publikorako Batzordeari egindako kontsultaren xedeetarako, interesdunak egokitzat jo du gogora ekartzea (...) jaunak nola aurkeztu zuen; izan ere, akademia-eremuan kokatu zuen, zuzenbide prozesaleko irakasle gisa aurkeztuz.

Amaitzeko esan du enpresa-zuzenbideko masterrean eman beharreko saioa —kontsulta ekarri duen jardueran— Medarb-ari eta gatazkak konpontzeko beste modu alternatibo batzuei buruzkoa izango dela, eta horrek Zuzendaritzaren helburu objektiboekin inolako zerikusirik ez duela. Hortaz, "(...) beste behin esango dut zenbait doktrina-lan idatzi ditudala gai horren inguruan, baita zenbait ikastaro eta hitzaldi eman ere, eta beraz argi utzi nahi dut gai hori nire ikerketa-lerroetako bat dela akademia- eta unibertsitate-eremuan, beste zenbaitekin batera, aldeztu aurretik aipatutako komunikazioen sekreturako eskubidearekin batera, adibidez".

Ilusio horretan, interesdunak behin barkamena eskatu eta gero kontsulta honen eta jarduerak egiteko unearen artean denbora-tarte txikia dagoelako, honako hau erantsi du: "(...) zentzu horretan adierazi nahi nuke uste osoa dudala ez naizela etikoki gaitzestekoa den ezer egiten ari, eta, gorago adierazi dudanez, garatuko ditudan jarduerak aldeztu aurretik adierazi ditudala

Batzordeak dagoeneko emandako doktrinari jarraiki. Nolanahi ere, gai honen inguruko presio mediatikoa ikusirik, azkenean kontsulta egitea erabaki dut”.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen 16.4 ataleko bigarren tartekian aurreikusitako komunikazio telematikorako mekanismoak baliatuta, EBPK honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

I. AURREKARIAK

1. Etikaren eta Jokabidearen Kodea 2013ko maiatzaren 28ko bileran onartu zuen Gobernu Kontseiluak, politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko eta herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza berrezartzeko asmoz.

Horretarako, Kode horrek identifikatzen ditu Eusko Jaurlaritzako goi-zuzendaritza exekutiboan parte hartzen duten kargu publikoei eska dakizkiekeen jokabide, jarrera eta portaerak, horrela beren ekintzak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezzen kode horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzera begira, Jaurlaritzaren erakunde-irudia babesteko, haren efizientzia sendotzeko eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza inola ere ez murrizteko.

2.- Etika eta Jokabide Kodea oinarrizko bost balioen inguruan egituratzen da –zuzentasuna, bikaintasuna, politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatzea, lidergoa eta berrikuntza– , eta funtsezko sei printzipioen ganean: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketarekiko erantzukizuna, gardentasuna eta gobernu irekia, zintzotasuna eta desinteres subjektiboa, begirunea eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, jokabide, jarrera eta portaeren katalogo handi bat biltzen du kodeak, eta horiek guztiek osatzen dute Etika Publikorako Batzordeak bere jardunean baliatu beharreko erreferentziatzko parametroa, kodera borondatez atxikitako kargu publikoek gai eta dilema etikoei buruz galdetzen diotenean.

Horri dagokionez, kodeak 16.3 ataleko lehenengo puntuan ezartzen du Etika Publikorako Batzordea izango dela “ohar, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du”.

II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI PLANTEATUTAKO GAIA

1.- Interesdunak Etika Publikorako Batzordera jo du kontsulta bat egiteko bere zuzendari-postuarekin zerikusirik ez duten bi akademia- eta irakaskuntza-jardueraren inguruan. Interesdunak bi jarduera horietan parte hartuko du, eta parte-hartze horrengatik ordainsari bat jasoko duela aurreikusi da.

Interesdunak alde zuzenetik adierazi duenez, "(...) iaz beste kontsulta bat egin nizuen gaur planteatzen dizuedanaren antzeko jarduera batengatik, eta aldeko erantzuna jaso nuen zuen aldetik. Nire ustez, jasotako irizpen horretatik eta argitaratutako ebazpenetatik doktrina orokor bat atera dut, gaur planteatutako egoerei aplikatzeko modukoa. Nolanahi ere, mesfidantzak saihesteko eta nire izen ona eta nire Gobernuarena zaintzeko, honako kontsulta hau egiteko erabakia hartu dut". 3/2013 Kontsultaz ari da, eta horren arrazoibidea baliagarri izango da kontsulta hau ebazteko, hartan planteatutako gaiak eta orain Etika Publikorako Batzordearen iritzia menpe jarritakoak antz handia dutelako elkarren artean.

Lehena ekainaren 5ean ematekoa zen, eta interesdunak saio bat emango zuen jada Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian, Ertzaintzaren Eskala Gorenean eta Euskal Herriko Udaltzain Kidegoen Intendente kategorian sartzeko ikastaroaren barruan. Bigarren ikastaroa ekainaren 12an ematekoa da, eta interesduna gonbidatu dute abokatu-langelaren enpresa-zuzenbideko masterrean saio bat emateko(...).

Horrengatik guztiagatik, interesdunak, uste osoa badu ere etikoki gaitzestekoa den ezer ez dela egiten ari eta garatuko dituen jarduerak alde zuzenetik aztertu dituela Batzordeak jadanik eman duen doktrinari jarraiki, Etika Publikorako Batzordeari eskatu dio bi ikastaro horietan ordaindutako parte-hartzea Etika eta Jokabide Kodean ezarritakoarekin bat datorren edo ez ebatz dezan.

2.- Komeni da adieraztea, batzorde honek aztergai duen gaia zehazki aztertzeari ekin aurretik, Etika eta Jokabide Kodeak interes-gatazkekin lotutako jokabide, jarrera eta portaera batzuk aurreikusten dituen arren (horrela behar du nahitaez), kargu publikodunen jardunetan gai horrekin lotutako dilema etikoei duten garrantzia kontuan hartuta, arlo horretan indarrean dagoen araudia –eta, zehazkiago, kargua hartu aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuk egiteari dagokiona– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubideak berariaz erregulatzen dituen arau juridikoan; horretan, diziplina- eta zigor-erregimen bat ezartzen da, legezketasun-printzipioari jarraituz lege-mailako testu batean erregulatzen dena.

3. Horrenbestez, Etika Publikorako Batzordeari ez dagokio ebaztea ea legezko bateraezintasuna dagoen Eusko Jaurlaritzako zuzendari izatearen eta, zuzenbide prozesalean aditua den aldetik, interesduna jarduera akademikoetan, irakaskuntzan edo argitalpenean aritzearen artean. Aitzitik, Etika Publikorako Batzordeari dagokio ebaztea ea interesduna horrelako jardueretan aritzea eta ordain ekonomikoa kobratzea bat datorren Etika eta Jokabide Kodearen oinarriko balio, printzipio, jokabide eta portaerekin. Aurrekariei buruzko

atalean azaldu dugunez, Etika eta Jokabide Kodearen helburua da politikaren zentzu etikoa berreskuratzea, euskal herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza sendotzeko; zehazki, Eusko Jaurlaritzaren eta haren arduradun politikoen eguneroko jardunean dutena.

4. Horren ondorioz, interesdunaren jarduna Etika eta Jokabide Kodean aurreikusitako balio, printzipio, jokabide, jarrera eta portaerekin bat datorren edo ez erabakitzea mugatuko da soilik Etika Publikorako Batzorde hau, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzari egokituko zaio erabakitzea, hala behar izanez gero, aitortzeko eskatzen den jardura akademikoaren eta interesdunaren kargu publikoan jardutearen artean legezko bateraezintasunik dagoen edo ez, hala xedatzen baitu apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 16. artikuluan.

5.- Hau ezartzen du Kodeak 11.4 ataleko hirugarren paragrafoan Kodeari atxikitako goi-karguei buruz: "Inolaz ere ez dute onartuko ordainsaririk, diruz zein gauzaz, hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik, *salbu eta ekintzak aurretiazko lanbide-prestakuntzak edo -jarduerak direla medio gauzatzen badira, eta ekintza horretan parte hartzearen xedeak eta nolakotasunak bere karguarekin inolako loturarik ez badu*".

6. Interesdunaren idatzia aztertu eta edukia egiaztatu ondoren, aski kreditaturik gelditu da, Etika eta Jokabide Kodean ezarritakoaren ondorioetarako —ez baita Etika Publikorako Batzorde honen lana interesdunaren irakaskuntza-, ikerkuntza- eta argitalpen-ibilbidearen kalitate zientifikoa beste ondorio batzuetarako aztertu edo alderatzea—, aipatutako ikastaroan eta masterrean emandako saioak "bere aurretiazko prestakuntza-edo lanbide-jarduerak aintzatetsita" eman zituela, eta horien jabe zela, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzako zuzendari izendatu aurretik. Izan ere, interesdunak berak bere eskaeran ongi asko adierazi duenez, bi ikastaroetara gonbidatu dute zuzendaria izan baino lehen irakaslea izan zelako, Eusko Jaurlaritzaren IREKIA orrian argitaratutako *Curriculum Vitae*ak egiaztatzen duenez.

Kontsulta-egileak erantsi duenez, 2010. urteaz geroztik zenbait aldiz parte hartu du Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian sartzeko eta igotzeko ikastaroetan (Komisario —bi sustapen—, intendente —sustapen bat— eta komisarioorde —sustapen bat— kategorietara igotzeko ikastaroa).

Adierazi du, halaber, ikastaro horiek antolatzea UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen mendeko Kriminologiaren Euskal Institutuaren ardura dela, eta bera erakunde horretako kide dela, baita ikertalde eta ikerketa-proiektuetako kide ere, logikoa denez, gaur egun eremu horretan betetzen duen jardura askoz ere txikiagoa bada ere zuzendari gisa hasi arte betetzen zuena baino.

Bestetik, eman beharreko gaia "Zuzenbide prozesala: komunikazioen interzeptazioa eta giza eskubideak" da, eta, atzeman daitekeenez, eta interesdunaren hitzetan, "ia-ia ez du zerikusirik Zuzendaritzaren barruan garatutako zeregin arruntekin.

Oro har, aurreko ikasturteetan gai bera eman du, eta horretarako erabili zituen kasu praktikoak alde aurretik prestatuta zeuden, behar izanez gero eguneratuta eta talde bakoitzera egokituta. Gainera, gai horri buruzko zenbait liburu-kapitulu argitaratu ditut, zenbait hitzaldi eta komunikazio emateaz gain, Estatuko eta nazioarteko konferentzia eta biltzarretan”.

Argudiatu duenez, “abokatu-langelako zenbait kide ezagutu nituen eta lankidle izan ditut Eusko Jaurlaritzan sartu baino urte batzuk lehenago (...).

Laburbildurik, langelako zenbait abokatu —zigor- eta merkataritza-arloetakoak, batik bat— interesdunarekin harremanetan jartzen ziren, zuzenbide prozesalari buruzko galderak egiteko edota aholku edo iritzia eskatzeko, horixe baita haren-jakintza-arloa unibertsitate-eremuan.

Ondoren, 2012ko abenduan, eta beraz, Eusko Jaurlaritzan sartu baino lehen, abokatu-langelako bazkideek eskatu zidaten abokatu-langelaren "urteko ideiare" sariaren epaimahaiko kide izateko, Estatuko abokatu batekin eta unibertsitateko beste irakasle batekin batera (...). Balio erantsiko ideia berritzaileak sustatu eta saritu nahi ditu sari horrek abokatu-langelako abokatuen artean.

Kolaborazio horrengatik ez zidaten ordaindu, eta 2013. urtean errepikatu egin nuen”.

Gainera, 2014ko apirilean "El Medarb y otras fórmulas híbridas de resolución de conflictos" ("Medarb-a eta gatazkak konpontzeko beste formula hibrido batzuk") izeneko artikulua argitaratu nuen “Abokatu-langelaren aldizkari juridikoan (...)”, “arbitrajeari, bitartekotzari eta gatazkak konpontzeko beste sistema batzuei” eskainitako zenbaki berezi baten barruan.

Zentzu horretan, eta Etika Publikorako Batzordeari egindako kontsultaren xedeetarako, interesdunak egokitzat jo du gogora ekartzea (...) jaunak nola aurkeztu zuen; izan ere, akademia-eremuan kokatu zuen, zuzenbide prozesaleko irakasle gisa aurkeztuz. “Azkenik, akademia-eremutik, interesdunak, UPV-EHUko zuzenbide prozesaleko irakaslea denak, Medarb-ari buruzko artikulua idatzi du (...)”.

Amaitzeko esan du enpresa-zuzenbideko masterrean eman beharreko saioa —kontsulta ekarri duen jarduera— Medarb-ari eta gatazkak konpontzeko beste modu alternatibo batzuei buruzkoa izango dela, eta horrek Zuzendaritzaren helburu objektiboekin inolako zerikusirik ez duela.

Hortaz, “(...) beste behin esango dut zenbait doktrina-lan idatzi ditudala gai horren inguruan, baita zenbait ikastaro eta hitzaldi eman ere, eta beraz argi utzi nahi dut gai hori nire ikerketalerroetako bat dela akademia- eta unibertsitate-eremuan, beste zenbaitekin batera, alde aurretik aipatutako komunikazioen sekreturako eskubidearekin batera, adibidez”.

Hitzaldian garatutako gaia alde aurretik jorratua zuen beste batean, eta berariaz aztertzen da zuzenbide prozesalean, hain zuzen ere interesdunaren jatorrizko postuari dagokion diziplinan.

Aztertutako espedientetik ondorioztatzen denez, interesduna aditu ezaguna denez gero zuzenbide prozesalean, aipatutako ikastaroan eta masterrean parte hartu izanaren "xedeak eta nolakotasunak", printzipioz, "ez dute batere zerikusirik Eusko Jaurlaritzako zuzendari gisa betetzen duen kargu publikoarekin".

Eta ez dute zerikusirik, hain zuzen ere, interesdunak egiaztatzen duelako alegatutako jarduera akademikoa eta horrek dakarren onarpena kronologikoki aurreragokoak direla Eusko Jaurlaritzako goi-kargu izatera iristea baino, eta hori osoki doitzen zaio aipatutako Etika eta Jokabide Kodearen 11.4 "in fine" atalean ezarritako salbuespenari.

7. Are gehiago, kasu honetan ez dago harreman material zuzenik interesduna (aurrez) aditua den zientzia- eta jakintza-arloaren eta Eusko Jaurlaritzako zuzendari-lanetan egokitu zaizkion eginkizun administratiboen artean. Hortaz, Etika eta Jokabide Kodearekin bat, goi-kargudun izateak ez du batere zerikusirik kargudunaren jarduera akademikoarekin, nahiz eta bi arloak zuzenbide-munduaren ingurukoak izan, interesdunak emandako lehen hitzaldia "Zuzenbide prozesala: komunikazioen intertzeptazioa eta giza eskubideak" gaiari buruzkoa baitzen eta bigarrena "Medarb-a eta gatazkak konpontzeko beste modu alternatibo batzuk" gaiari buruzkoa, printzipioz, gaiak ez baitute zerikusirik Eusko Jaurlaritzako zuzendari-ardurarekin.

8. Etika Publikorako Batzordearen ustez, 11.4 atala sistematikoki hartu behar da aintzat jokabide "nagusi"ari buruzko esakunearen barruan; hona hemen azken hori: "Onestasanari, desinteres subjektiboari eta kargu publikodunen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak". Arauak zuzentasunaren balioa eta onestasanaren printzipioa babestu nahi ditu, baita, neurri batean, eredugarritasunaren printzipioa ere. Ildo horretan, Etika Publikorako Batzordearen ustez, interesdunak aipatutako jarduera akademikoan parte hartu izanak eta etorkizunean parte hartzeak ez die inondik inora eragiten aipatutako balio eta printzipioei, eta ez du zerikusirik Etika eta Jokabide Kodeak debekatzen dituen jokabideekin. Gainera, interesdunak bidezko baldintzetan parte hartu du horrelako jardueretan, dedikazio-orduen kopuruaren ikuspegitik. Argi dago kontsultaren xede diren ikastaroetan duen parte-hartzea puntuala dela, eta, saioak arratsaldez emango dituen, jarduera hori bere postuaren jarduera arruntekin bateragarri egiteko arazorik ez duela izango.

Areago aztergai dugun kasuan, izan ere, kargudun izan aurretik irabazitako lanbide-onarpena eta gai horiei buruz aitortu zaion aditu-izaera direla medio eskatzen baitzaio aipatutako udako ikastaroan parte hartzeko. Kasu horietan, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-eredua, kaltetuta aterata beharrean, indartuta ateratzen da kontsultaren eraginpean jarritako jardueren garapena dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren goi-zuzendaritza exekutiboaren lanbide-prestakuntza agerian jartzen duen neurrian.

9.- Horren ondorioz, bidezkoa da interesdunak "diruzko edo gauzako ordainak" jaso ahal izatea ikastaroak edo hitzaldiak emateagatik, baldin eta bere karguan jarduten duen bitartean gauzatutako jarduera pribatu edo publikoekin ez badu Etika eta Jokabide Kodea urratzen, eta kalterik egiten ez badio, bereziki, onestasanari, desinteres publikoari eta kargu publikodunen


interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabide, jarrera eta portaerei, ezta Eredugarritasunari eta beste kanpo-adierazpen batzuei lotutakoei ere. Kasu honetan ez lirateke kaltetuta aterako, halaber, eredugarritasunari edo beste adierazpen batzuei lotutako jokabideak (15. atala). Horrez gainera, interesdunak bidezkoa edo arrazoizkoa denaren esparruan eutsi beharko die beti jarduera horiei, ekintza akademikoetara edo ekoizpen zientifikora bideratutako dedikazioak ez dezan ordezkatu edo alde batera utzi karguari berez lotutako eginkizunak, eta ez diezaion eragin, etengabeki edo noizean behin, arduradun publiko batek bere lanaldian bermatu behar duen dedikazio eskusiboari. Kasu honetan, muga horiek ez dira gaingiditzen.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzan duen goi-kargua dela medio interesduna aipatutako izaerako ekintzetan parte hartzera gonbidatzen badute, edo bistakoa bada inguruabar horrek modu erabakigarrian eragin duela ekintza horietara gonbidatzeko orduan, interesdunak kontuan hartu beharko luke lan horrek "kargu publikoan jardutearekin inolaz ere lotuta ez" egoteari uzten diola eta, horren ondorioz, uko egin beharko liokeela trukean ordain ekonomikoren bat jasotzeari.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da Etika Publikorako Batzordeak hartutako

ERABAKIA

(...) jaunak **ez du Etika eta Jokabide Kodea urratzen** Ertzaintzaren eskala gorenean eta Udaltzain Kidegoen intendente kategorian sartzeko ikastaroan eta enpresaren zuzenbideko masterrean "Zuzenbide prozesala: komunikazioen interzeptazioa eta giza eskubideak" eta "Medarb-a eta gatazkak konpontzeko beste modu alternatibo batzuk" saioak emateari **dagokion ordainsaria jasotzea onartzen badu.**



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko presidentea

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 23a